

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko ekainaren 26tik ekainaren 30erako astea

---


## ➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI EUROGUNEA



### Datuaren analisia

Euroguneko KPIa % 1,3 igo zen ekainean, % 1,2ko igoera aurreikusten zuten iritziak gaituz, eta % 1,4ko igoera erakutsi zuen aurreko hileko behin betiko irakurketaren ondoren. Eurostaten arabera, euroguneko inflazioaren osagai nagusien artean, ekainean, energiak izan zuen urteko hazkunde-tasarik handiena. Haren atzetik geratu ziren zerbitzuak, elikagaiak, alkohola, tabakoa eta ondasun industrial ez energetikoak. Azpiko KPIak % 1,1 egin zuen aurrera ekainean, aurreko hileko % 0,9ko igoeraren ondoren eta aurreikusitako % 1,0 baino gehiago.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: BEHIN BETIKO KPIa 1H17

	Est. PIB 1º Trim	Diferencia	1ª Revisión	Diferencia	2ª Revisión
<b>Total</b>	0,70%	<b>0,50%</b>	1,20%	<b>0,20%</b>	1,40%
<b>Consumo privado</b>	0,23%	<b>0,21%</b>	0,44%	<b>0,31%</b>	0,75%
<b>Consumo público</b>	-0,30%	<b>0,10%</b>	-0,20%	<b>0,04%</b>	-0,16%
<b>Inversión</b>	1,62%	<b>0,23%</b>	1,85%	<b>-0,14%</b>	1,71%
* No residencial	1,12%	<b>0,22%</b>	1,34%	<b>-0,11%</b>	1,23%
* Residencial	0,50%	<b>0,00%</b>	0,50%	<b>-0,02%</b>	0,48%
<b>Inventarios</b>	-0,93%	<b>-0,14%</b>	-1,07%	<b>-0,04%</b>	-1,11%
<b>Sector Exterior</b>	0,07%	<b>0,06%</b>	0,13%	<b>0,10%</b>	0,23%

### Datuaren analisia

Estatu Batuetako Merkataritza sailaren Analisisien Bulegoak, datuaren hirugarren aurreikuspenean, bi hamarren igo zuen herrialdeko Barne Produktu Gordin urtekotua urteko lehenengo hiru hiletarako, % 1,4raino, iragan maiatzean aurreikusi zuen % 1,2aren aldean eta apirilko lehenengo aurreikuspeneko % 0,7aren ondoren. Gobernuaren esanetan, hirugarren aurreikuspen honetan emandako igoeraren erantzulea aurrez emandako kontsumo pertsonalaren eta esportazioen datuan kontabilizatu gabeko ezusteko igoera bat da. Hala ere, ekonomiaren argazki orokorra ia berdina dela azaldu zuen.


### Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) Analisi Ekonomikoen Bulegoak kaleratzen duen datua da. Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Estatu Batuek ekoizten dituzten azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.



## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisisa

Industria-ekoizpenak % 3,3 egin zuen atzera maitzean, aurreko hilarekin alderatuta. Maitzean industria-ekoizpenaren atzeraldiari bultzada handiena eman zieten industriak honako hauek izan ziren: garraio-ekipamenduak, erabilera orokorra, metal fabrikatuak. Aitzitik, ekoizpenean aurrerapauso nabarmenena eman zuen sektorea petrolioaren produktuak eta ikatzarena izan zen.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreiku
07/03	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
07/03	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	49.8
07/03	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.9
07/03	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	55.6
07/03	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	55.0
07/03	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	59.3
07/03	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	57.3
07/03	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 9.3
07/03	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	52.1
07/03	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	55.2
07/04	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-114.9
07/05	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
07/05	Japonia	PMI Nikkei zerbitzuak Japonia	--
07/05	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
07/05	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	--
07/05	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	56.7
07/05	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	55.3
07/05	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.1
07/05	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.7
07/05	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	53.9
07/05	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.3
07/05	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	-% 0.5
07/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
07/06	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
07/06	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	190k
07/06	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	243k
07/06	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$46.3b
07/06	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	56.5
07/07	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 4.0
07/07	Frantzia	Balantza komertziala	-5100m
07/07	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 1.4
07/07	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	% 2.0
07/07	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	% 0.2
07/07	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£2500
07/07	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
07/07	Estatu Batuak	Langabezia-tasa	% 4.3

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera negatiboak izan zituzten. EBZko zenbait kideren iritziek baldintzatu zuten astea. Asteartean, Mario Draghik Euroguneko ekonomiaren bilakaeraren gaineko bere baikortasuna berretsi zuen. Besteak beste, ziurgabetasun politikoak desagertu direla eta horiek traba izan beharrean, orain hazkundea bultzatzen lagunduko zutela iradoki zuen. Draghiren hitzek pizgarrien hasieraren eta erritmoaren inguruko zalantzak piztu zituzten, eta zalantza horiek ostegunean sendotu egin ziren, Banku Zentraletako kideek diru-politika mugatzaileen alde egindako adierazpenen ondoren. Zalantza horiek jaitziera nabarmenak eragin zituzten txoko guztietan, bereziki nabarmenak Europako burtsetan. AEBetan, Senatuak osasun-erreformaren proposamenari buruzko bozketa atzeratzea erabaki zuen. Atzeratze horrek, gainera, ezbaian jarri zituen berriro gogo biziagoz espero diren beste erreforma batzuk, hala nola zergen beherakadarena. Beste alde batetik, Amerikako bankuen stress-testen emaitzak eman ziren ezagutzera, eta positiboak izan ziren.

## ERRENTA FINKOIA:

EBZko zenbait kidek egin zituzten adierazpen ez hain zuhurrek Europako zorraren errentagarritasunen gorakada handia eragin zuten, hala core nola periferikoa. Alemaniako hamar urterako tasak 21 op egin zuen behera, % 0,47raino. Haren homologo espainiarra 16 op igo zen, % 1,54raino, eta arrisku-prima 5 op murriztu zen, 107 puntuetaraino. AEBetan ere gorako mugimenduak eman ziren, interes-tasak pixkanaka igotzeko aukerak indartzera etorri ziren Yellenen hitzek eta Europak kutsatuta. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

EBZko zenbait kideren tonu zuhurragoa Europako dibisan nabaritu zen, astearen amaieran, % 2,07 irabazi baitzuen dolarraren aurrean. Euroak ere balioa irabazi zuen Yenaren aurrean, eta balio pixka bat galdu Liberaren aldean, BoEko presidentek tasa ofiziala igotzea beharrezkoa izan litekeela adierazi ostean. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioak % 6,75 egin zuen gora, AEBetan ekoizpena murrizteari esker. Urreak, azkenik, erakarmena galdu eta % 1,21 egin zuen atzera.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	%Var 2017
MSCI WORLD (Eur)	171,58	-2,24	1,20
IBEX 35	10.444,50	-1,75	11,68
DJ EURO STOXX 50	3.441,88	-2,87	4,60
DJ STOXX 50	3.122,17	-2,18	3,71
FTSE	7.312,72	-1,50	2,38
S&P 500	2.423,41	-0,61	8,24
Dow Jones	21.349,63	-0,21	8,03
NASDAQ	6.140,42	-1,99	14,07
NIKKEI 225	20.033,43	-0,49	4,81
MSCI EMERGENTES (Eu)	348,08	-1,89	8,41
MEXBOL	49.857,49	1,79	9,23
BOVESPA	62.899,97	2,97	4,44
SHANGHAI	3.343,39	1,09	2,89
Rusia Rts Moscú	1.000,96	1,22	-13,14

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,57	0,05	0,19
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,26	0,03	0,02
EE.UU. 2 AÑOS	1,38	0,04	0,19
ALEMANIA 10 AÑOS	0,47	0,21	0,26
ESPAÑA 10 AÑOS	1,54	0,16	0,16
EE.UU. 10 AÑOS	2,30	0,16	-0,14
ALEMANIA 30 AÑOS	1,25	0,19	0,30
ESPAÑA 30 AÑOS	2,85	0,22	0,23
EE.UU. 30 AÑOS	2,83	0,12	-0,23
<b>Spread de credito (pb)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	56,00	2,44	-16,04
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	246,76	13,04	-41,94
Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,14	2,07	8,61
Yen / Euro	128,40	3,07	4,39
Libra/ Euro	0,88	-0,37	2,74

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	48,23	6,75	-12,96
Oro	1.241,55	-1,21	7,75

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.